

NAHIZ ETA TXIMINOA ZETAZ JANTZI, BETI TXIMINOA IZANGO DA

Bazen behin, Etxegarate itxaso bat zenean, herri arrantzale bat. Herri horretan, altzeak eta sekueiak beteta zegoen herrian, mutil oso itsusi bat bizi zen. Mutil hori beti bakarrik zegoen, itsusia zelako. Inork inoiz ez zion kasurik egiten. Tabernetan ez zioten sartzen uzten arbuia egiten zuten, apaldu egiten zuten eta gainera esaten zioten: “Inoiz ez duzu emazterik edukiko”. Hau guztiak aspertuta Orobeko kobazulora bizitzera joan zen.

Bakarrik bizitzen bi urte pasa ondoren, udazkeneko egun batean, zizak bilatzen ari zela iratxo bat agertu zitzaion eta esan zion:

- Zergatik zaude beti bakarrik?
- Zergatik bizi zara kobazuloan?

Orduan gure protagonista, bapatean, hitzik gabe geratu zen. Eta iratxoak esan zion:

- Lasai zaitez, zure laguna naiz. Lagundu nahi zaitut.

Eta orduan Koldo, gure protagonista, hitz egiten hasi zen:

- Nire herrian ez naute maite, zeren eta oso itsusia naiz. Horregatik kobazuloan bizi naiz.

Iratxoak galdetu zion:

- Zer nahi duzu, polita izan?

Eta Koldok esan zion:

- Bai, nola ez! Eta nola lortu dezaket hori?
- Hiru frogara egitea proposatzen dizut polita izateko. Lehenengo frogara: Bakarrik bizi beharko duzu.
- Frogara hori egina daukat, bi urte bakarrik egon naizelako.
- Bigarren frogara: Bost sekueia zaharrenak moztu behar dituzu, eta gero ekarri beharko dituzu, nire etxea egiteko.

Hirugarren frogara: Itsasoa lehortu behar duzu.

Eta Koldok esan zion:

- Hori oso zaila da, ez dakit nola egiten den.

Momentu batean pentsatzen geratu zen eta bapatean idea bat izan zuen.

“Iratxoaren munduan itxasoak tapoi bat dauka. Orduan aurkitu beharko dut”.

Eta Koldok esan zion iratxori:

- Frogak egiten badituz polita izango naiz?
- Bai!.- Esan zion iratxoak.
- Hiru frogak egin itzazu eta nik polita egingo zaitut.

Koldok denbora galdu gabe bost sekueia moztera joan zen.

Sekueiak nola moztu ez zekien, orduan Alzania ibaian kastore familia bat bizi zela gogoratu zen eta fabore bat zor ziotela.

Beraien bila joan zen. Kastoreak aurkitu zituenean, tratu bat egin zuen.

Tratua zen: kastoreak zazpi sekuoia moztu behar zituztela. Ados geratu ziren. Eta bigarren froga eginda zegoen. Bost sekuoiarekin iratxoaren etxea egin zuen.

Eta zailena geratzen zen, hirugarren froga: Itsasoa lehortu.

Beste bi sekoiarekin txalupa bat egin zuen. Itsasoaren tapoia bilatzera joan zen. Hiru egun pasatu eta gero itsaslamina bat ikusi zuen baina ez zion kasurik egin, zeren eta ideia bat zeukan: Itsasoaren tapoia aurkitzea.

Bapatean tapoia ikusi zuen eta bitartean ekaitz galanta agertu zen. Ekaitzaren erruagatik bere txalupa hondoratu zen. Itotzen zegonean, itsaslamina bat laguntzeko agertu zen eta bien artean tapoia aurkitu zuten. Tapoia kendu zuten eta itsasoa desagertu zen.

Nola itsaslamina itsaso gabe geratu zen, Koldorekin Orobeko kobazulora joan zen eta gero iratxoaren bila joan ziren.

Iratxoa aurkitu zutenean, berak esan zuen: muxu bat eman ezazue eta gero zu eta zure itsaslamina politik izango zarete; iratxoak itsaslaminari konplizitate keinu bat egiten zion bitartean. Pentsatu gabe muxu haundi bat eman zuten. Bapatean politik bihurtu ziren eta denbora galdu gabe Altsasura joan ziren. Gero herrian zeudenean, denak itxusiak zirela ikusi zuten. Orduan itsaslamina haserratu zen, zeren eta guztiak itxusiak ziren eta itxasoa ere desagertu zen. Koldok ez zekien iratxoak itsaslamina ezagutzen zuela, horregatik iratxoak Koldo itsaslamina bilatzeko engainatu zuen. Orduan itsaslamina iratxoarekin larrujotzaile ona zelako joan zen; itsaslaminari sexua asko gustatzen baitzitzaion. Iratxoa eta itsaslamina gau guztia larrua jotzen egon ziren, bitartean gure Koldok bakarrik begiratu egiten zuen. Horregatik hurrengo egunean Orobeko kobazulora bakarrik itzuli zen eta penaz hil zen.

Ondorioa: Ez zaitez fidatu inortaz

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Altsasuko plazan.

Egileak: Joxe Angel Arregi
Ritxi Lopez Goikoetxea
Iñaki Bengoetxea